

ikasmina:

**Ikasmina DoKS:**

Gipuzkoan bizitza guztian zeharreko  
ikastetari buruzko dokumentuak

# Adina, ikaskuntza eta motibazioa

62. dokumentua

2019ko urtarrila

**Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.**  
Gipuzkoa, un territorio que aprende.

**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Ekonomia Sustapeneko,  
Landa Ingurune eta  
Lurralde Orekako Departamentua



**Diputación Foral  
de Gipuzkoa**  
Departamento de Promoción  
Económica, Medio Rural  
y Equilibrio Territorial

**AURKIBIDEA**

<b>1. Aurkezpena .....</b>	<b>3</b>
<b>2. Ikasten duten pertsonak eta adina .....</b>	<b>4</b>
2.1. Ikasten duten pertsonak eta adina.....	4
2.2. Parte hartze jarraitua ikaskuntzan eta adina.....	7
<b>3. Adina eta motibazioa.....</b>	<b>9</b>
3.1. Ikasteko arrazoiak .....	9
3.2. Ikasteko oztopoak eta adina.....	13
3.3. Ikasteko aureikuspena eta motibazioa.....	17
3.4. Ikaskuntzaren ibilbidea eta adina .....	18

# 1. Aurkezpena

Gipuzkoak ezagutzen oinarritutako ekonomia duen eta lehiakorra eta dinamikoa den gizarte bihurtu nahi du. Horretarako, ikaskuntzaren gizartea sortu behar da, ekonomia produktiboagoa garatu eta bizi-kalitatea hobetu ahal izateko.

Helburu hori du Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentuak, eta hala, uste du ikaskuntza eta talentuaren garapena direla aurrerabide eta kohesio soziala eragiteko gai diren elementu estrategikoak, eta pertsonak, berriz, eredu berri horren giltzarriak. Hau da, talentuaren, antolaketaren eta teknologiaren arteko oreka egokia topatuta, modu iraunkorren garatuko den lurralde bihurtzeko.

Ikuspegi horrekin, ezagutzak, gaitasunak eta kualifikazioak hobetzera bideratuta egunerokotasunean pertsonak egindako jarduera guztiak biltzen ditu bizi osoko ikaskuntzak; hala, bizitzako eremu guztiak txertatzen ditu: pertsonala, zibikoa soziala edo profesionala.

Dokumentu hau ikaskuntza-jarduerak egitearen inguruko emaitzetan oinarritzen da, pertsonen adinaren arabera, eta ikasteko motibazioa, aurreikuspenak eta ikaskuntzaren ibilbidea aintzat hartzen ditu.

## 2. Ikasten duten pertsonak eta adina


### 2.1. Ikasten duten pertsonak eta adina

#### Gipuzkoako hamar pertsona heldutik lauk ikasi egiten dute

2017an eta 2018an, Gipuzkoako helduei egindako kontsultan lortutako datuen arabera, hamar lagunetik lauk hartu dute parte kontsulta egin aurreko hamabi hilabeteetan etengabeko ikaskuntzako jardueretan.

Eraitza hori partekatua da eta ikasten duten gizonen eta emakumeen proportzioa antzekoa da, alde txiki batzuekin (puntualak) kontuan hartutako bi urteen artean, baina ez dira adierazgarriak.

1. grafikoa Etengabeko ikasketa-jardueretako partaidetza (%).Guztizkoa eta generoaren arabera. 2017-2018



Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Etengabeko ikaskuntzan parte hartzeari dagokionez alde nagusiak pertsonen adina aztertzean ageri dira. Hala:

- 25 eta 34 urte arteko hamar lagunetik bostek baino gehixeagok (% 53,8) egin ditu etengabeko ikaskuntza-jarduerak. Ehuneko horretan, batez ere, emakumeen parte-hartzea handixeagoa da (% 58,5) gizonezkoena baino (% 49,2); ondorioz, emakumeen proportzioa ehuneko 9,3 puntu handiagoa da.
- Era berean, 35 eta 44 urte arteko hamar lagunetik bostek baino gehixeagok (% 55,4) hartu dute parte etengabeko ikaskuntza-jardueretan, eta kasu honetan ere, arraila emakumeen kolektiboaren aldekoa da (ehuneko +4 puntu), baina ez hainbestekoa.
- 45 eta 54 urte arteko hamar lagunetik lauk (% 44,2) hartu dute parte etengabeko ikaskuntza-jardueretan. Baina kolektibo horretan, gizonezkoen parte-hartzea (% 46,4) handiagoa da emakumeena baino (% 42).
- 55 eta 64 urte arteko hamar lagunetik hiruk hartu dute parte etengabeko ikaskuntza-jardueretan (% 31,9); ehunekoa nabarmen handiagoa da emakumeen artean (% 35,6) gizonezkoetan baino (% 28,3).
- 65 eta 74 urte arteko hamar lagunetik batek baino gehixeagok (% 16,3) hartu du parte etengabeko ikaskuntza-jardueretan. Proportzioa antzekoa da emakumeen (% 15,2) eta gizonen (% 17,4) artean.

**1. taula Etengabeko ikasketa-jardueretako partaidetza (%).Guztizkoa eta adinaren araberakoa. 2018**

	Biztanleria guztira (25-74 urte)		
	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak
<b>Guztira</b>	<b>41,0</b>	<b>39,5</b>	<b>42,5</b>
<b>Adin taldeak</b>			
25-34 urte	53,8	49,2	58,5
35-44 urte	55,0	53,0	57,0
45-54 urte	44,2	46,4	42,0
55-64 urte	31,9	28,3	35,6
65-74 urte	16,3	17,4	15,2

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia

## Hamar lagunetik ia lauk hartzen du ikaskuntza ez-formaleko jardueretan

Ikaskuntza hiru prozedura motaren bidez egin daiteke:

- Ikaskuntza formala: prestakuntza-zentro batean egiten da eta prozesua amaitzean, ziurtagiri ofiziala lortzen da.
- Ikaskuntza ez-formala: edozein lekutan –prestakuntza-zentro batean edo ez-egiten da eta eduki eta helburu (aurrez ezarrita) jakin batzuen arabera da, baina amaitutakoan ez da ziurtagiri ofizialik lortzen.

Erantsitako koadroan jasotako emaitzen arabera, hamar lagunetik batek adierazi du ikaskuntza formaleko jarduerak egin dituela, eta hamarretik ia lauk, ikaskuntza ez-formalekoak.

Adinaren faktorea garrantzitsua da: hain zuzen, adinak aurrera egin ahala, ikaskuntza formaleko parte-hartzea murriztu egiten da. Hala:

- 25 eta 34 urte arteko pertsonak dira ikaskuntza formaleko ehuneko handiena dutenak (% 27,7), tasa adinarekin jaitxi egiten da eta ia nulua da adin handieneko pertsonengan (65-74 urte, % 0,8).
- Hala ere, 35-44 eta 54-55 urteko pertsonak dira ikaskuntza ez-formaleko jardueretan gehien parte hartzen dutenak (% 49,0 eta % 40,1), ikasteko modalitate malguak eta zehatzagoak (edukiak) baitituzte.

### 2. taula Ikaskuntza formaleko, ez-formaleko eta informaleko jardueretako partaidetza (%)Guztizkoa eta adinaren arabera. 2018

Biztanleria guztira (25-74 urte)

	Arautua	Ez arautua
<b>Guztira</b>	<b>10,0</b>	<b>35,9</b>
<b>Adin taldeak</b>		
25-34 urte	27,7	39,2
35-44 urte	12,0	49,0
45-55 urte	7,0	40,1
55-64 urte	4,9	29,7
65-74 urte	0,7	16,3

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia

## 2.2. Parte hartze jarraitua ikaskuntzan eta adina

### Hamar lagunetik ia bik adierazi dute ikaskuntzan parte-hartze jarraitua egiten dutela

Etengabeko ikaskuntzan parte-hartze jarraitua egitea kontsulta egin aurreko lau asteetan prestakuntza-jarduerak egin izanari lotuta dago. Lortutako emaitzen arabera, kontsultatutako helduen % 16,8k izan dute parte-hartze jarraitua etengabeko ikaskuntzan.

Pertsonen ezaugarriari dagokienez, honako hau ikus dezakegu:

- Ikaskuntzako parte-hartze jarraitu hori antzekoa da emakumeen eta gizonen artean (% 17,6 eta % 16,1).
- Eta argi eta garbi adinarekin jaitsi egiten da; hala, etengabeko ikaskuntzako partaidetzaren ehuneko handienak gazteenei dagozkie eta bereziki garrantzitsua da 25 eta 34 urte artekoengan (% 30) eta 35 eta 44 urte artekoengan (% 22,5).

### 3. taula Parte-hartze jarraitua ikaskuntza-jardueretan (azken lau asteak). Guztikoa, eta generoaren eta adinaren arabera (%). 2018

Biztanleria guztira (25-74 urte)

	Guztira	Arautua	Ez arautua
<b>Guztira</b>	<b>16,8</b>	<b>6,0</b>	<b>12,6</b>
<b>Generoa</b>			
Emakumezkoak	17,6	5,6	13,9
Gizonezkoak	16,1	6,3	11,2
<b>Adin taldeak</b>			
25-34 urte	30,0	18,5	18,5
35-44 urte	22,5	9,0	15,0
45-54 urte	17,4	3,5	15,1
55-64 urte	7,1	0,5	6,6
65-74 urte	8,1	0,0	8,1

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Ikaskuntza-formatuaren tipologia ere adierazgarria da. Hala:

- Generoaren arabera alderik ez dagoela ikus daiteke, eta bi kasuetan ikaskuntza ez-formala nagusitzen da (% 13,9 eta % 11,2).
- Bi ikaskuntza motei dagokienez, partaidetza jarraitua adinarekin jaitsi egiten da, baina erritmo askoz handiagoan ikaskuntza formalean ez-formalean baino.
- Hala, 25-34 urte arteko pertsonen artean, partaidetza jarraituaren datua berdina da formalean eta ez-formalean (% 18,5).
- 35-44 urteko eta 45-54 urteko pertsonak parte-hartze maila bera dute ikaskuntza ez-formalean (% 15,0 eta % 15,1), baina alde handia dute ikaskuntza formaleko parte-hartzean (ehuneko 5,5 puntu).
- Esan beharrekoa da adinean gora egin ahala ikaskuntza ez-formaleko partaidetza nagusitzen dela.



# 3. Adina eta motibazioa

## 3.1. Ikasteko arrazoiak

### Pertsonen erdiak baino gehiagok adierazi du motibazio profesionala

Ikaskuntza formaleko edo ez-formaleko jarduerak egiteko motibazio nagusia batez ere profesionala da (% 57,2 eta % 68,7). Gainera, horrekin lotuta, badirudi aldeak daudela<sup>1</sup> emakumeen eta gizonen artean ikaskuntza formaleko motibazioei dagokienez, baina nahiko antzekoak dira ikaskuntza ez-formalarekin lotuta.

### 4. taula Ikaskuntza formaleko eta ez-formaleko jardueretako partaidetza, motibazioen arabera (%). Batezbestekoa, 2018

Biztanleria guztira (25-74 urte)

	Guztira		Emakumezkoak		Gizonezkoak	
	Arautua	Ez arautua	Arautua	Ez arautua	Arautua	Ez arautua
<b>Arrazoi profesionalak</b>	<b>57,3</b>	<b>68,7</b>	<b>64,1</b>	<b>68,2</b>	<b>51,2</b>	<b>69,3</b>
<b>Arrazoi pertsonalak</b>	<b>42,7</b>	<b>31,3</b>	<b>35,9</b>	<b>31,8</b>	<b>48,8</b>	<b>30,7</b>

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Ikaskuntza egiteko arrazoi profesionalak aipatzen dituzten arrazoiak zehatzago aztertuta, ikus daiteke lotura handia dagoela enpleguarekin, hala, profesionalen artean gehien aipatutako arrazoiak "nire lana hobeto egitea" da bi ikaskuntza motetan.

<sup>1</sup> Kontuz, ez baita alderik izan beste kontsulta batzuetan.

Hala ere, gainerako arrazoietan agerikoa da ikaskuntza formalari emandako garrantzia handia dela eta gehienbat titulua eskuratzeari (ezagutza egiaztatzea), enplegua topatzeari edo lanez nahiz enpresaz aldatzeari egiten zaio erreferentzia.

Azkenik, ikaskuntza ez-formalarekin lotuta arrazoi profesionaletan sartutako gainerako arrazoiak askoz gutxiago aipatzen dira.

**5. taula Ikaskuntza formaleko eta ez-formaleko jardueretako partaidetza, motibazioen arabera (%). Guztira. 2018**

Biztanleria guztira (25-74 urte)

	Arautua	Ez arautua
<b>Arrazoi profesionalak</b>	<b>57,3</b>	<b>68,7</b>
Nere lana hobeto egiteko edota etorkizun profesionala hobetzeko	79,3	75,9
Ziurtagiri bat eskuratzeko	79,3	40,8
Lan bat lortzeko aukerak handitzeko	64,6	26,5
Lanbide/Ogibidez aldatzeko aukerak handitzeko	52,4	16,3
Enpresaz aldatzeko aukerak handitzeko	42,7	13,6
Nire negozioa sortzeko	18,3	8,8
<b>Arrazoi pertsonalak</b>	<b>42,7</b>	<b>31,3</b>
Interesatzen zaidan esparru bateko ezaguerak edo teknikak jasotzeko	86,6	88,8
Eguneroko bizitzan erabilgarriak diren ezaguerak edo teknikak lortzeko	68,3	67,0
Jendea ezagutzeko/ ondo pasatzeko	43,9	28,2

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Motibazio pertsonalari dagokionez, ikasteko helburuari erreferentzia egiten dioten arrazoiak dira nagusi, hain zuzen ere, pertsonaren interesekoak diren edo eguneroko bizitzarako erabilgarriak diren ezagutzak eskuratzeko: hiru lagunetik bik gutxienez adierazi dituzte arrazoi horiek bi ikaskuntza motetan.

Azkenik, aipatu beharrekoa da hamar lagunetik lauk esan dutela ikaskuntza formaleko jarduerak jendea ezagutzeko eta/edo dibertitzeko egiten dituela. Ehuneko hori hamarretik hirukoa da ikaskuntza ez-formalaren kasuan.

## Garapen profesionala hobetzea eta/edo lanez nahiz enpresaz aldatzea dira ikasteko arrazoi nagusiak

Erantsitako koadro honetan jasota dago gazteek ikasteko duten motibazioa. Aukerak bi multzo handitan adierazita daude, hau da, motibazio profesionala edo pertsona, eta ikaskuntza formalarekin eta ez-formalarekin lotuta.

**6. taula Ikaskuntza formaleko jardueretako partaidetza, motibazioen arabera (%). Adinaren arabera. 2018**

	Biztanleria guztira (25-74 urte)		
	25-34 urte	35-54 urte	55-74 urte
<b>Arazoi profesionalak</b>			
Nere lana hobeto egiteko/etork. profesionala hobetzeko	91,7	77,8	33,3
Ziurtagiri bat eskuratzeko	91,7	75,0	41,7
Lan bat lortzeko aukerak handitzeko	83,3	58,3	16,7
Lanbide/Ogibidez aldatzeko aukerak handitzeko	61,1	50,0	25,0
Enpresaz aldatzeko aukerak handitzeko	55,6	38,9	8,3
Nire negozioa sortzeko	25,0	11,1	16,7
<b>Arazoi pertsonalak</b>			
Interesatzen zaizkidan ezaguerak eskuratzeko	83,3	97,2	50,0
Eguneroko bizitarako ezaguera erabilgarriak eskuratzeko	66,7	77,8	33,3
Jendea ezagutzeko/ ondo pasatzeko	25,0	11,1	16,7

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Lortutako emaitzek erakusten dute ikaskuntza formalari dagokionez 25-34 urteko eta 35-54 urteko pertsonen ikasteko arrazoi gehiago adierazten dituztela (6 arrazoi) 55-74 urte artekoek baino (3 arrazoi). Hala, motibazio bakoitzari erreferentzia egiten dioten ehunekoak handiagoak dira aukera guztietan.

Gainera, 25-34 urte arteko ia denek garapen profesionala hobetzeko eta ziurtagiria lortzeko hartzen dute parte ikaskuntza formalean. Hirugarren arrazoi nagusia lana lortzeko aukerak handitzea da.

Adinak aurrera egin ahala, hiru motibazio profesional horiek garrantzia galdu eta ikasteko arrazoi nagusia izaten da pertsonari interesatzen zaion zerbait ikasteko motibazio pertsonala.

**7. taula Ikaskuntza ez-formaleko jardueretako partaidetza, motibazioen arabera (%). Adinaren arabera. 2018**

Biztanleria guztira (25-74 urte)

	25-34 urte	35-54 urte	55-74 urte
<b>Arazoi profesionalak</b>			
Lana hobeto egiteko/etork. profesionala hobetzeko	84,3	87,4	44,7
Ziurtagiri bat eskuratzeko	64,7	41,3	23,7
Lan bat lortzeko aukerak handitzeko	51,0	27,5	7,9
Lanbide/Ogibidez aldatzeko aukerak handitzeko	31,4	16,8	5,3
Enpresaz aldatzeko aukerak handitzeko	29,4	13,8	2,6
Nire negozioa sortzeko	21,6	9,0	0,0
<b>Arazoi pertsonalak</b>			
Interesatzen zaizkidan ezaguerak eskuratzeko	88,2	92,8	80,3
Eguneroko bizitzarako ezag. erabilgarriak eskuratzeko	64,7	66,5	69,7
Jendea ezagutzeko/ ondo pasatzeko	25,5	25,1	36,8

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Lortutako emaitzek erakusten dute ikaskuntza ez-formalari dagokionez 25-34 urteko eta 35-54 urteko pertsonak ikasteko arazoi gehiago adierazten dituztela (5 arazoi) 35-54 urte artekoek (4 arazoi) 55-74 urte artekoek (3 arazoi) baino. Hala, aipatutako ehunekoen sekuentzia beherantz doa adinarekin.

Edonola ere, gainera, ikus daiteke 25-34 urte eta 35-54 urte arteko hamar lagunetik zortziren kasuan, ikaskuntza ez-formalean parte hartzearen helburua garapen profesionala hobetzea dela.

Bigarren arazoi multzoa da ezagutza ziurtatzea edo lana lortzea, gazteenen bi herenek baino gehiagok aipatutakoa, baina adinak gora egin ahala garrantzia galtzen du.

Bestalde, hiru adin multzoetarako, hamar lagunetik zortzik adierazi dute ikasteko arazoi nagusia motibazio pertsonala dela, pertsonari interesatzen zaion zerbait ikasi nahi izatea, alegia. Eta, gainera, pertsonen bi herenek, edozein adin multzotan, adierazi dute eguneroko bizitzan erabilgarriak diren ezagutzak eskuratu nahi dituztelako egiten dituztela ikaskuntza ez-formaleko jarduerak.


### 3.2. Ikasteko oztopoak eta adina

#### Hamar heldutik ia seik ez dute parte hartzen ikaskuntza-jardueratan

Gipuzkoako hamar heldutik ia seik (25 eta 74 urte artekoak) ez dute parte hartu ikaskuntza-jardueretan kontsulta egin aurreko hamabi hilabeteetan. Azken bi urteetan, 2017 eta 2018, egonkor mantendu den proportzioa da.

Gainera, esan daiteke ez dagoela alde nabarmenik generoari dagokionez, bi taldeen artean ehuneko hiru puntu eskaseko aldea baitago generoaren arabera, eta urtetik urtera nolabaiteko desegonkortasuna baitago.

**2. grafikoa** Ikaskuntza-jardueretan parte hartzen ez duen populazioa (%).Guztizkoa eta generoaren araberakoa. 2017-2018



Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia

### Adinarekin, pertsonak ikasteari uzten diote

Adina faktore garrantzitsua da ikaskuntzan inplikatzeko. Hala, adinak gora egin ahala, handitu egiten da ikaskuntza-jardueretan parte hartzen ez dutenen ehunekoa.

Hain zuzen ere, 25-34 urte artekoen erdiak baino gutxiagok (% 46,2) ez du ikasi azken urtean, eta proportzio hori ia bikoitza da 65-74 urtekoen artean (% 83,7). Joera hori egonkorra da denborari dagokionez.

Kontuan hartu beharrekoa: zahartzearen faktoreak Gipuzkoako etengabeko ikaskuntzako parte-hartze ratioa kaltetuko du, adin handieneko pertsonen multzoa gero eta handiagoa baita.

### 8. taula Ikaskuntza-jardueretan parte hartzen ez duen populazioa (%). Adinaren arabera. 2017-2018

Biztanleria guztira (25-74 urte)		
	2017	2018
<b>Adin taldeak</b>		
25-34 urte	48,5	46,2
35-44 urte	43,5	45,0
45-54 urte	50,0	55,8
65-64 urte	72,3	68,1
65-74 urte	88,3	83,7

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia

**Pertsonak ez dute ikasten familiako erantzukizunengatik, laneko ordutegiarekin bateraezina delako eta/edo motibaziorik ez dutelako.** Zein dira pertsonak etengabeko ikaskuntza-jardueretan ez parte hartzeko arrazoiak? Populazio osoa aintzat hartuta ateratako emaitzek erakusten dutenez, hiru pertsonatik batek honako hauetakoren bat aipatu du ez ikasteko arrazoei dagokienez: familiako erantzukizunak, motibaziorik ez izatea eta laneko ordutegiarekin bateraezina izatea.

Beste hiru arrazoiak (zaharregia dela uste izatea, ikasi beharrik ez izatea edo ikaskuntza hori ezin ordaindu izatea) hamar lagunetik batek aipatu ditu gutxienez.

### Emakumeek aipatzen dituzte familiako erantzukizunak gehienbat

Emakumeen eta gizonen arteko aldeak garrantzitsuak dira familiako erantzukizunak oztopo gisa ikusteari dagokionez; hain zuzen ere, hamar emakumetik bostek aipatu dute arrazoi hori (% 45,5) eta ia hamarretik bira baino gehixeagora murrizten da (% 25,0) gizonen kasuan.

Gainerako arrazoiak nahiko antzekoak dira emakumeen eta gizonen artean, ikaskuntzaren kostuari dagokionez izan ezik. Kasu horretan, gutxiago aipatu arren (% 11,4), emakumeen artean nabarmen handiagoa da (% 14,0) gizonen artean baino (% 8,9).

### 9. taula Ikaskuntza-jardueretan parte hartzen ez duen populazioa (%).Guztizkoa eta generoaren arabera. 2018

	Biztanleria guztira (25-74 urte)		
	Guztira	Emakumeak	Gizonak
<b>Familia erantzukizunak</b>	<b>35,0</b>	45,5	25,0
<b>Motibazio falta</b>	<b>31,9</b>	31,1	32,7
<b>Lan-orduekin bateraezintasuna</b>	<b>30,4</b>	29,4	31,5
<b>Ez dut adinarik, adinekoa kontsideratzen naiz</b>	<b>16,8</b>	17,9	15,7
<b>Ez dut behar, ezaguera nahikoak ditut</b>	<b>13,5</b>	12,3	14,5
<b>Garestia da, ezin dut ordaindu</b>	<b>11,4</b>	14,0	8,9

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia


### Ikasteko oztopoak pertsonen bizitzako unearen arabera dira; eta adinarekin motibazioa jaitsi egiten da

- Gazteenentzat (25-34 urte), oztopo nagusia lan-ordutegiarekin bateraezina izatea da; erdiek aipatzen dute arrazoi hori (% 58,3). Eta hamar heldutik bik gutxienez aipatu dute familiako erantzukizunekin bateraezina izatea, ikastearen kostua edo behar ez izatearen ustea.
- 35-54 urtekoen artean, arrazoi nagusia familiako erantzukizunekin eta/edo laneko ordutegiarekin bateraezina izatea da; 35-54 urtekoen erdiek aipatu dituzte arrazoi horiek. Gainera, adin multzo horretarako, motibazio-falta dagoeneko oztopoa da ia hiru lagunetik batentzat.

- Azkenik, 55-74 urteko hamar lagunetik lauk aipatu dute oztopo nagusia motibaziorik ez izatea dela (% 40,1). Bestalde, adin-tarte horretako hamar lagunetik hiruk aipatu dituzte familiako erantzukizunak (% 28,3) eta adina, zaharrak direla uste izatea (% 27,8).

Azken batean, ez ikasteko oztopoak oso lotuta daude pertsonen bizitzako ibilbidearekin, ez erantzukizunei dagokienez bakarrik, baita ikaskuntzari dagokionez nola sentitzen diren eta beren burua nola ikusten duten kontuan hartuta ere.

### 3. grafikoa Ikaskuntza-jardueretan parte hartzen ez duen populazioa (%). Adinaren arabera. 2018



Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia



### 3.3. Ikasteko aurreikuspena eta motibazioa

#### Hamar pertsonatik ia lauk ikasteko asmoa dute

Aipatu dugun moduan, Gipuzkoan hamar heldutik lauk etengabeko ikaskuntza-jarduerak egin dituzte azken hamabi hilabeteetan. Eta, gainera, hamar lagunetik ia lauk adierazi dute datozen hamabi hilabeteetan ikasteko aurreikuspena dutela.

Generoaren arabera ere ez dago alderik, ikasteko aurreikuspenen ehunekoak oso antzekoak baitira emakumeen eta gizonen artean.

Adin-taldeei dagokienez, ikusten da ikasteko aurreikuspena duela 25 eta 54 urte arteko bi lagunetik batek (% 55,4 eta % 50%), baina nabarmen jaisten dela 55 eta 74 urte arteko tartean (% 21,1). Joera hori berdina da gizonen eta emakumeen artean.

#### 10. taula Datorren urtean prestakuntza-jardueretan parte hartzeko asmoa. Adinaren arabera. 2018

Biztanleria guztira (25-74 urte)

	Guztira	25-34 urte	35-54 urte	55-74 urte
<b>Guztira</b>	<b>39,7</b>	<b>55,4</b>	<b>50,0</b>	<b>21,1</b>
Emakumezkoak	40,3	56,9	52,1	19,2
Gizonezkoak	39,0	53,8	47,8	23,0

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia

### 3.4. Ikaskuntzaren ibilbidea eta adina

#### Gipuzkoako hiru heldutik batek modu erregularrean ikasten du

Gipuzkoako hiru heldutik batek adierazi du etengabeko ikaskuntza-jardueretan parte hartzen duela urtero edo ia urtero; esan daiteke ikaskuntza bere bizitzan txertatuta dagoela eta modu erregularrean egiten duela.

Bestalde, pertsona guztiak kontuan hartuta, laurden batek (% 24,7) adierazi du urte batzuetan ikasten duela. Kasu horretan, ikaskuntzaren ibilbidea puntuala dela esan daiteke. Eta pertsonen ia bosten baten kasuan, ikastea salbuespeneko jarduera da, ia ez baitu halakorik inoiz egin.

Azkenik, helduen laurden batek ez du inoiz ikasi (hezkuntza-sisteman izandako ikaskuntza formaleko ibilbideaz kanpo).

#### 11. taula Prestakuntza-jardueretan parte hartutako maiztasuna. Guztikoa eta adinaren arabera. 2018


Biztanleria guztira (25-74 urte)				
	Urte guztiak edo ia guztiak	Batzuk	Ia inoiz	Inoiz ez
<b>Guztira</b>	<b>31,3</b>	<b>24,7</b>	<b>19,2</b>	<b>24,9</b>
<b>Adin taldeak</b>				
25-34 urte	42,3	33,8	14,6	9,2
35-44 urte	38,5	27,0	23,5	11,0
45-54 urte	32,6	24,4	19,8	23,3
55-64 urte	25,8	26,4	17,0	30,8
65-74 urte	15,6	10,4	19,3	54,8

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Baina, ikaskuntzako eredu pertsonala nola ezartzen den kontuan hartzeaz gain, pertsonen galdetu zaie ea azken urtean ikaskuntzan duten partaidetza handitu duten haien ustez. Lortutako erantzunen arabera, 2018an hamar lagunetik ia bik (% 19,0) adierazi dute ikaskuntza-jarduera gehiagotan hartu dutela parte. Ehuneko hori 2017an jasotakoa (% 13,1) baino altuxeagoa da.

Bestalde, joera hori antzekoa da emakumeen eta gizonen artean eta bi kasuetan gehien ikasi dutela uste duten pertsonen ehunekoa ia hamar lagunetik biko da (% 17,6 eta % 20,4).

**4. grafikoa Aurreko urtearekin alderatuta ikaskuntza-jardueretako partaidetza handiagoa izan den kasuak. Guztizkoa eta generoaren arabera. 2017-2018**



Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Adin-tarteen arabera joerak islatzen du pertsonen ikaskuntzako partaidetzaren estrategia; hala, 25 eta 54 urte arteko pertsonak aipatzen dute gehienbat bizi osoko ikaskuntza-jardueretan partaidetza handitu dutela.

**12. taula Aurreko urtearekin alderatuta ikaskuntza-jardueretako partaidetza handiagoa izan den kasuak. Adinaren arabera. 2018**

Población total (25-74 años)

	25-34 urte	35-54 urte	55-74 urte
<b>Guztira</b>	<b>25,7</b>	<b>20,0</b>	<b>10,5</b>
<b>Generoa</b>			
Emakumezkoak	36,4	19,5	8,1
Gizonezkoak	16,2	20,5	12,8

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua. Gipuzkoako Foru Aldundia





Izenburua: Adina, ikaskuntza eta motibazioa  
62. dokumentua, 2019ko urtarrila

Koordinazioa eta gainbegiratzea: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako  
Departamentua.  
Gipuzkoako Foru Aldundia

Lantzea: IKEI, research & consultancy S.A.